LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

## ALKATEAREN BANDOA

"ERASO MATXISTARIK GABE, LAUDIO ASKE"

Egoera edozein izanda, edozein adineko emakumeen edota LGTBI+ pertsonen aurkako erasoen aurka egingo da eta zigortu egingo dira. Laudioko Udalak herritar guztiak gonbidatzen ditu jarrera aktiboa hartzera emakumeen nahiz LGTBI+ pertsonen aurkako edozein erasoren aurrean, erasoa jasan duen pertsona lagundu eta babestera nahiz erasotzailea isolatzera. Horiek horrela, gogora ekarri nahi dugu horrelako jokabideak ez toleratzeko eta zigortzeko konpromisoa hartu duela Udal honek, San Roke jaiak askatasunez, segurtasunez eta berdintasunean gozatu ditzan pertsona orok.

Jarrera horren ildotik, beraz, debekatu egiten da mezu edo lelo matxistak dituzten materialak (kamisetak, txapak etab.) saltzea. Horrelakoak saltzen direla antzematen bada, horiek saltzeari uzteko agindua eman ahalko da, baita materialak konfiskatzekoa ere, eta ez dira itzuliko. Neurri horren helburua da guztion erantzukizuna sustatzea, eraso matxistarik gabeko jaiak lortzeko.

Alkate udalburuak konfiantza dauka laudioarron nahiz bisitarien gizabide-senean eta San Roke jai zoriontsuak izateko lankidetzan arituko direlakoan dago.

GOZATU DEZAGUN GEURE HERRIAZ ETA JAIEZ ERANTZUKIZUN-SENEZ

## BANDO DE LA ALCALDIA

"LAUDIO LIBRE DE AGRESIONES MACHISTAS"

Las agresiones machistas contra las mujeres y personas LGTBI+ de cualquier edad y en cualquier situación, serán perseguidas y sancionadas. El Ayuntamiento de Laudio, invita a la ciudadanía a adoptar una actitud activa frente a cualquier tipo de agresión contra las mujeres y personas LGTBI+, y a socorrer o apoyar a la persona agredida y aislar a la persona agresora. En este sentido, se recuerda el compromiso de este Ayuntamiento de no tolerar y perseguir este tipo de conductas para que los San Roques sean unas fiestas en las que todas las personas puedan disfrutar de forma libre, segura y en igualdad.

Desde este posicionamiento, se prohíbe la venta de materiales (camisetas, chapas, etc) con mensajes y/o lemas machistas. En caso de detectarse esta venta podrá ordenarse su retirada y/o ser decomisados sin posterior devolución. Esta medida tiene por objeto fomentar la responsabilidad de todas y todos para el desarrollo de unas fiestas libres de agresiones machistas.

Esta Alcaldía confía en el sentido cívico de las y los laudioarras y visitantes y en su colaboración para el buen desarrollo de las fiestas de San Roque.

DISFRUTEMOS DE NUESTRO PUEBLO Y DE LAS FIESTAS CON SENTIDO DE RESPONSABILIDAD

Laudio, 2018ko abuztuaren 10a

LAUDIO
LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Alkatea